

Musikari eta irratia esatari

Jaione Olazabalen
ahots garbia ▶ 2-3



Emandako urratsen aurkako kritikak «onartezinak» dira Axurdarioentzat

LIZARTZA ▶ Alderdien Legearen aurkakoen hitzek
«harridura eta kezka» sortu dizkiote plataformari ▶



Axurdario taldeko kideak eta hainbat herritar atzo eguerdiko prentsaurrekoan udaltxean. OLAIJA ESKITXABEL



JOSU AGIRRE ▶ TXIRRINDULARIA

«Ez dut hurrengo urteari begira jarri nahi»

Denboraldi polita darama tolosarrak
elite mailan, garaipen ugari lortuta ▶ 4

ELDUAIN ▶

Arantxa Otamendi omendu dute

Jaiotetxean jarri diote
oroitarria ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Sagardoa txotxetik edateko aukera jarri dute tabernetan

Eskualdeko hamasei tabernetan jarri
dute sistema berria duela gutxi ▶ 5

EZ ERABAKI ETORKIZUNA GU EZAGUTU GABE
ETORKIZUN HAUNDIKO LANBIDEA

- Erresuma Batuko leapandegiko III. Maila
- Nazioarteko Pivot-Point Diploma
- Gune Homologatua
- Lan Burtsa, lanpostu indize handia
- Goizeko eta arratsaldeko bandak

San Francisco 39, behea
TOLOSA
Tel. 943 654361

**GUUREKIN,
ZUZENEAN LANERA**

www.centrosbeta.com



Uzturretik ▶ Amaia Agirre

Adi(o)skide
bati

Harroak nahilago omen du bidea galdu norbaiti galdetu baino. Zenbat aldiz gertatu ote zait hori berbera niri ere. Aspaldian haren berri ez nekien aspaldiko lagun bati idatzi nion aurreko batean, barru-barrutik idatzi ere. Egun, oroitza penek bizirauten duten harremana da gure artekoa, baina la ezinezkoa da oroitza penek soilik asebetetzea. Orduko gaizki ulertu batetik oraingo ezin ulertu bat ordezkatzan du.


Oraindik ez dut haren erantzunik jaso, ez behintzat nahi nukuen modukorik. Isiltasuna izan da harengandik jaso dudaren erantzun bakarra, baina mila hitzek adina esan dit. Denborari ere denbora eman behar zaio, egia da, baina denborak ez du guztia sendatzen ahal. Joseba Sarrionandiarekin bat nator: desioak kabia abandonatuz baino ez dira nire bihotzean. Hori-xe gertatu zait niri ere. Bizitakoa bizita dago, baina bizipenek ez didate bizitzetuzten.

Nire buruari mila galdera egin nizkion, eta egiten dizkiot egun ere, gure arteakoaren inguruan, harreman oro eternala eta betiko balitz bezala. Zuk ere ez al duzu erantzunik?

Zertarako hainbeste «zergatik?», zergatik hainbeste «zertarako?». Nik ere banek! Inoiz entzun dudan arrazoirik arrazoituenetako bat da nire buruan jiraka dabilen hau: instant bat, eta denak ahazten saiatuko zara; beste instant bat, eta denek ahantziko zaituzte.

Ez dut oraina iragana-
ren gainean eraiki nahi.
Ez dut nire nahigabeen
zama zure egin nahi, nor-
bere lepotik inoren lepo-
ra katea aldatzea ez baita
askatasuna lortzea, men-
dekua hartzea baizik.

Hona hemen bigarren eskutitza, hona hemen bigarren aukera, bai zuretzat, baita niretzat ere. Hona ni, horra zu!

KOMIKIA ▶ GORKA SALABERRIA**JAIONE OLAZABAL ▶ KANTARIA**

«Euskal kantu zaharrak
berreskuratzeko bidea
eginez aritzen naiz gustuen»

Jaione Olazabal irakasle eta esatari izateaz gain, kantari ere bada, bere zaletasunik guztizkoena horixe baitu; ahotsa garbi, bereziki euskal kantuak maite eta lantzen ditu

JAIONE ASTIBIA

Jaione Olazabal Aresoko neska gaztea ezaguna da musika eskolako irakasle izana delako, eta udan Karrape Irratiko esatari lanetan aritzen delako. Baina bere ispila eta harribitxia, ahotsa du: indartsua, garbia eta aldi berean leuna. Hori egiaztatzeko, aukera izanez gero behinik behin, entzutea bezalakorik ez litzateke.

**Festaren bat ere ospakizun bat bada, inguru haue-
tan, Jaione han. Baina lanean.**
Batzutan jai ere eginen nuke
gustura, baina... Bestalde, poz-
garri ere bada, seinale alde-al-
deko zerbait egiten dudana.
Herri titikan erromeriak egi-
ten ditugu, baina bestela.

gehiena, kantaldiak ematen eta ibiltzen gara. Horretan aritzen naiz gustuen: letrak banatu eta melodiak joz, euskal kantu zaharrak berreskuratze-ko bidea eginez.

Esaten da, euskalduna otordu ondoren, kantari berehala jartzen dela.

Ez da horrela. Gainera leku askotan ez dago batere ohiturarik. Letrak banatu eta animazten saitzen gara, baina leku askotan kosta egiten zaigu, izugarri gainera.

Erromerietan dantzarik egiten du jendeak? Edo bestelako eraginik nabaritzen da?

Gure estiloa ez da hori. Beti esaten dugu gure errepertorioa zein den. Tokatu izan zaigu, ustez herri euskaldun bate-

ra joan eta 4tik 3 erdaldunak aurkitzea eta «musica española, por favor» esanez hastea. Euskal musika bada eskatzen dena, egokitzen gara, nahiz lehengo, nahiz oraingora.

Hainbeste festa eta... festarik egiten duzu?

Asteburu batzuetan, egun libre bat izan arren tartean, gehiegi ez dugu egiten. Beti bada halako kezka bat, biharamonean nora eta noizko joan behar den eta... Baina hala ere, eguneko festa oso gustuko dut, betidanik. Gaueko haina. Askotan, egunez festa egin eta gauez lana tokatzen da.

Honetan egin nahi duzu lan?
Oso zaila da. Ez da batere erregularra, ez ordutegi aldetik, ez soldata aldetik ere... Askotan

irabazitakoa ekiporako izaten da, edo maturaren bat ordaintzeko... Oso zaila da honetatik bizia ateratzea. Nahiago dut irakasle modura aritu. Gainera, nago, gurea bezalako taldeak desagertzen ari ote diren: herrietatik deitu, egiten dute baina ohitura delako, ez eskaririk dagoelako. Euskal Kantu Txapelketakoek esaten zigten «artistak izan nahi baduzuze, leku txarrera etorri zarete: segi beste norabatera».

Kanturako jaioa, bazara. Baina ikasi ere egin beharko zenuen ahotsa hezitzeko.

Soinua bai, asko landu dut. Musika eskolara bakar-bakarrik etortzen nintzen Aresotik, 8 urterekin. Lehendabiziko eskolak, gainera, gaztelaniaz izaten genituen eta geroztik, orduan irakasle izandakoa lankide izan dut eta esan izan dut, nire aurpegiaz ez dela ahazten, nola begiratzin nion harrituta: ez nion tutik ere ulertzen. Gero, ohitu ginen. Baina askotan, agindutako doinuak batere jo gabe, nire gauzetan aritzen nintzen eta gero eskolan kontuak! Bestalde, ahotsa ez dut bereziki landu, ikastaroren bat bai, egin dut, baina nik hartu diot teinua. Jendaurreako, berriz, herriko jendearen aurrean, ttikitandik astero-astero zerbaiz eginez, irakurri, kanta-tuz... horrek hezi nau.

WEB-ETIK ▶



Zer iruditu zaizkizu aurtengo Tolosako sanjoanak?

Gauza on asko izan dira aurtengo sanjoanetan, baina bate-lena mundiala izan da. Ikusi behar zen Zumardi Txikia, zubi Berria, Zumalakarregi kalea, Zerkausia eta Nafarroako zubia jendez beteta! Aurtengo berrikuntzarik handiena eta onena izan dela iruditzen zait. Hori bultzatu behar da eta hor lanean ari direnei animo. Horrelako ekitaldiekin laster lortuko dezue presa hidraulikoa Usabalen!

ALBERTO ▶ TOLOSA

San Joanak, mundialak!! Eta Koadrilen Eguna zer esanik ez! Nire galdera bakarra zera da: Zergatik ez du Udalak koadrilen bazkarirako karpa bat montatzen Plaza Be-

rrian? Tolosa Kup-ekin egin zen bezela. Larunbatean ez genuen arazorik izan ia gehienok itzala lortu genuelako nola edo ala. Baina egin zuen eguraldi eder horren ordez, kristoren euri jasa izan bazen? Pikutara antolatzailen lan guztia. Datorren urterako nire ustez egokia izango litzateke karpa hori montatzea, gainera Udalak ez al du bada oraindik karpa bat? Larunbatetako azoka berezietarako erabiltzen dutena?

MADDI ▶ TOLOSA

Lobo electrico: lotsa gutxi. Nola liteke? San Joan jaiak, zure herrian, urtean aktuzio gutxi... eta ostralean plaza Berrian jotzeko aukera izan eta ez jo? Ez da serioa! Gainera abeslaria agoantatu behar 'Me la suda' esaten? Taldeak botako zenuen ezta?

PITXIN ▶ TOLOSA

Gero eta gehiago gustatzen zait San Joan eguna. Aurtengo gainera eguraldi ederra izan genuen. Duela gutxi ezagutu

dut barrutik (gauzak ezagutu behar diren bezala), eskopetari bezala ateratzen naitzenetik. Eta oso esperientzia gomendagarria iruditzen zait. Hemendik animatu nahi dut jendea festan parte hartzea: eskopetari, dantzari, musikari... nahi duen bezala.

ZURIÑE ▶ TOLOSA

Egun potentia larunbatekoa: eguraldi ederra, jende asko, giro polita, zikiri mundiala, Bonberoko txarangi-la... Holakoak behar ditugu Hernanira ez joateko.

MILON ▶ TOLOSA

Koadrilen Egunean sekulako giroa egin zuen; hala ere, bazkarian kristoren beroa pasatu genuen. Bazkarian zehar ez zen beste komentariorik egon; Plaza Berrian izan beharrean itzal gehiago dagoen beste nonbait egitea ez legoke gaizki.

JUANKAR ▶ TOLOSA

Umeentzako talde berri gehiago daude eta ez dituzte apenas ezer ekarri. Pailaso-

ak alde batera utzi eta Betizu saioak ekarri!! Horiek bai martxa!! Aioooo.

?? ▶ TOLOSA

Askotan entzun izan ditut berbena karrozetan musika taldeak. Eta oso gutxitan tokatu zait hain talde txarra ikustea sanjoanetan bezala. Duela 30 urte hobeto jotzen zutela esan dit musikari beterano batek. Non begiratzeko dute taldea aukeratzekoan?

MARTIN ▶ TOLOSA

Ez da behar bezala baloratzen erraldoi eta buruhandien konpartaren lana. Sekulako topaketa montatu zuten sanjoanetan, kanpoko taldeak ekarri eta egunpasa ederra antolatuz. Aurtengo jaietako gauzarik politenetakoa izan da, niretzat behintzat. Animo eta segi horrela!

ENDIKA FERNANDEZ ▶ TOLOSA

Duela urte batzuk izan genuen Jose Maria Jimeno Jurio eta bere lana ezagutzeko au-

kera Udaberri dantzari taldean. Aurtengo Aranzadi zientzia elkartearen laguntzari esker, Bordondantzari buruzko lan garrantzitsua argitaratuta ikusiko dugu. Aspal-di egin beharreko lana zen, baina orain arte ez da posible izan. Benetan, tolosarrontzat eta gure herriko ohi-turak maite ditugunontzat, opari bat da horrelako lana izatea. Eskerrik asko posible egin duzuen guztioi!

DANTZARI OHI BAT ▶ TOLOSA

Aurtengo San Joan jaietako azken eguna, ekainak 27, nahiko bete gelditu zela eta jai giroa mantendu zela iruditzen zait. Goizean batelenguruz sortu zen giroa, arratsaldean zezeketak bildu zuen jendea eta iluntzean txistu alardearen inguruan izan zen ikusmina egun borobilen osagaiak izan ziren. Ez zen noski, San Joan eguna edo larunbateko Koadrilen Eguna bezalakoa izan, baina egun polita irten zen azkenean.

XABIER M. ▶ TOLOSA

Orain taldea baduzu. Nola egiten duzue lan?

Gitarra eta perkusioa jotzen duen lagun batek eta nik, soina, gitarra eta panderoa joz, osatzen dugu. Erromerietarako trikitilari bat ere etortzen da. Jotzen ditugun eta abesten ditugun kantuak, nik ateratzen ditut, bai letrak eta melodiak ere, eta gero, taldean pixka bat entseatzen dugu.

Gerora, asmoren bat edo bai, diskoa ateratzeko, taldea handitzeko...

Gurea kasualitatez atera den gauza da, inongo intentziorik gabekoa. Izan ere ez genion jarri taldeari eta horretantxe dago oraindik. Jendea, herrietatik eta, deitzen hasi zen... eta asteburu gehienetan badugu saioen bat. Baina ez dugu horrelako intentziorik. Helburua, euskal kantuak zabaltzea eta ez galtzea dugu. Besterik ez.

Zer alor landu dituzu kantugintzan?

Bakarlari gisa oso gustura ari naiz. Asketa abesbatzan ere bai: biribilketak, zortzikoak...

Iruñeko, Lesakakoan ez naiz hain gustura ari izan. *Baldorba* bat kantatu edo gaztelaniazko *nana* bat kantatu, nik ez dut berdin sentitzen eta ez dut berdin kantatzen ere.

Profesionalizazioa urrun edo ezinezko ikusten duzu.

Horretan buru-belarri sar-



PERTSONALKI ▶

► Iruñean jaioa ► 1981eko abuztuaren 24an ► Aresoko Azpikoetxean bizi ► Musika Magisteritzako diplomaduna ► Irakaslea.

Gustuko kantaria? Benito Lertxundi. **Gustukoa ez duzun musikarik?** Jazz-a eta rap-a. **Beste zaletasun bat?** Puntu kruza. Biziata nago. **Oporretara?** Buf! Bost urte badira izan ez ditudala. Euskal Herriko mendialdeko landa etxe batera. **Nori kantatuko zenioke?** Euskal kantu bat entzun eta malko jarioan hasiko litzatekeen bati. **Norekin kantatuko zenuke?** Benito Lertxundirekin. **Non?** Aire librean. **Amets bat?** ... Ez dakit. **Sanferminetan izan zara?** Ez, baina gaur [atz]goaz pilota partiduak ikustera.

GEROA

«Kantariak badaude, ezin hobeak gainera. Baina gazteen diskei ez bazaie merkaturako biderik irekitzen, nekez»



ttea... Zaila da. Alde batetik, ez dugu konpromisorik, irekiagoa da, gure errepertorioa izateko. Diskotan eta sartuz gero, beti mugak jartzen dituzte eta ia ez ginateke hain gustura ariko.

Sorkuntzan saiatu zara noiz-bait?

Ez, baina ez dut nire burua oso gai ikusten horretarako. Elizarako eta, erdal kantuak euskaratu izan ditut, baina sortzeko jarri izan naizenean, ez zait deus berezirik atera. Eta ez. Diskoarenak adibidez, hori egitea ere beharko luke.

Zenbat denbora daramazu kantari?

Asko. Oroitzen naiz 8 urtetik berehalaxe hasi ginela. Lehen-gusu mordo ari ginen eta denok musika tresnaren bat jotzen dugu. Eta nik beti kantatu egin behar izaten nuen, gustura galditako. Orduz geroztik, gutxi-xeago gehixeago beti kantarekin nabil.

Jendeak erantzuten al du? Lekua bilatzen ari zarete?

Hasieran familiako eta herriko ospakizunetan hasi ginen. Gero piskanaka-piskanaka,

bestelako jendea ere deitzen hasi zen, batez ere otordueta-rako eta. Errepertorioa egokia da, kantuan aritu eta festa giro-rako, mugitu arazi egiten dugulako eta elkarren lehia sortu. Bestalde, kontzertuak ere eskaintzen ditugu: Nafarroako Kantu Txapelketan hasi ginen eta horren harira, ematen ditugu. Kantuak sailkatu eta gaitasunak erakusteko bidea izaten da horrela. Ikusleak, lasai ederrean entzun eta goza dezan.

Euskal Herrian badirudi gero eta kantari gutxiago daudela.

Kantariak egon, badaude. Kantu Txapelketan parte hartzen dutenak denak, kantari ezin hobeak dira. Baina disko bat atera eta lana egitea, lehen esan bezala, nekez. Gainera euskal kantagintzan, diska ateraz gero, ez dira merkatura ateratzen eta, grabatu eta gero... Kantari gazteen diskoen bat erostera joan eta modako musika eta duela urte askotako taldeen azpian, zokoren batetik, hantxe ateratzen dituzt! Banaketan, promozioan, euskal musikak ez du tarterik.

JOSU AGIRRE ▶ TXIRRINDULARIA

«Gustura nago egindako lanarekin»

Josu Agirre Serbitzu taldeko txirrindulari tolosarra pozik ageri da aurten egin duen lanarekin eta itxaropentsu dago hurrengo urteari begira; mailaz igotzea izango litzateke egin duen lanaren saria



IÑIGO TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Josu Agirre, Serbitzu taldeko 23 urteko txirrindulari tolosarra, denboraldi polita ari da burutzen, elite kategorian lehenengo aldia duelarik. Lehiatu den azken txirrindulari proben artean, ekainean Itsasondon Gervais erlojupekoan bere kategorian lehendabizikoa, Izarran izan zen erlojupeko Euskadiko Txapelketan elite kategorian lehendabizikoa postua, Kantabriako Mendiko Zirkuitoan etapa batean hirugarren eta Seguran lortutako laugarren postua daude, besteak beste, eta denboraldian zehar ere garaipen ugari batu ditu, bost guztira. Aldarte oneko eta umoretsu kontatu dizkio txirrindulari gazte honek Hitzari orain arte bizitakoak eta etorkizunerako, ahal badu txirrindularitza ari lotuta, dituen helburuak.

Gustura al zaude burutzen ari zaren denboraldiarekin?

Ez naiz kexatzen. Garaipen dezentek egin ditut orain arte, eta bestela ere, lehendabizikoa postuetan mantentzea lortu dut. Pozik nago, eta urte osoan egindako lanak merezi izan duela uste dut.

AMETSA

«Profesionalen amaitzea da nire helburua eta gogor lan egingo dut amets hori egi bihurtu arte»

Iazkoa baino denboraldi hobea izan da, beraz.

Ez zitzaizkidan gauzak nahi bezala irten; eroriko asko izan nintzen, eta lesioak ere bai eta asko sufritu nuen. Izaten ari nintzen zorte txarra dela eta, une batez, txirrindularitza uztea pasatu zitzaidan burutik, baina hobeto pentsatu eta indar handiagorekin berriro ekitea erabaki nuen. Aurrera begiratu behar da eta baikorrago izan, garai hobekak etorriko diren esperantza egon.

Indarberritu eta gero gogo handiagorekin hartu zenuen aurtengo denboraldia. Nola ikusten zenuen zeure burua?

Gogo handiz eta ilusio askorekin hasi nintzen, baina lehengo urtean baino okerrago ikusten nuen neure burua; fisikoki, kilo gutxiago nintuen eta hori asko nabaritzen da.

Urrian bukatuko da denbo-

ETORKIZUNA

«Ez dut hurrengo urteari begira jarri nahi, oso urduri jartzen naiz; etorriko da etorri beharrekoa»

raldia, eta hurrengo urtean?

Ez dut hurrengo urteari begira jarri nahi, ez zait horri buruz pentsatzea gustatzen; oso urduri jartzen naiz. Etorri beharrekoa etorriko dela uste dut. Zuzendarien kontua izaten da; txirrindularien curriculum-ak izaten dituzte eta azkenean gehien gustatzen zaizkien edo lan politena burutu dutenak geratzen dira.

Ez da erraza gustatzen zaizun horretaz bizi ahal izatea.

Lan asko egin behar da, eta nire kasuan sakrifizio eta esfortzu handia eskatzen du. Urteko lana eta gero, neure burua profesionalen artean ikustea nahiko nuke.

Zure txikitako ametsa betetzen ari al da?

Bai, pixkanaka pixkanaka. Ibilbide hau hasi nuenean helmuga iristea zen ametsa; helmuga, profesionalen lehiatzea

GUSTUKOENAK

«Olano asko gustatzen zait eta onenen artean sartuko nuke. Erlojupekoetan Ullrich aukeratzen dut»

zen edo txirrindularitza bizi-tzea. Oraindik ez da bete, baina betetzear egon liteke, beraz itxaropena ez dut galdu behar inoiz. Lan handia egiten duenak beti jasotzen du saria.

Aspaldi ekin al zenion txirrindularitza bideari?

Duela hamar-hamaika urte hasi nintzen infanteletan. Hasi nire kabuz, aitarekin eta gero Tolosako Oriako eskolan federatu nintzen, eta sei urtez aritu nintzen han. Iberdrola taldera pasatu nintzen ondoren. Azken hau desagertzean talderik gabe geratu ginen ni eta hainbat taldekide; azkenean Serbitzun hasi nintzen eta bi urte baino gehiago daramatzat bertan korritzen. Pilotan eta futbolearen ere aritu izan nintzen, baina nahiago nuen txirrindularitza. Gainera, etxean, aita beti izan du zaletasun berezia txirrindulariaren eta bera

izan zen kirol hau probatzera animatu ninduen, eta asko lagundu izan nau urte hauetan.

Zu bezala, askok dute helburu bezala profesionalen amaitzea.

Lan handia egiten dugu eta oso gogorra da, eta denak nahi dugu mailaz igo. Afizionatuetan urte asko daramazunean igotzeko garaia iritsi dela pentsatzen duzu eta horren zain itxaropen horrekin egotea besterik ez zaizu geratzen. Beti eman behar duzu ahal duzuna, proba guztietan erakutsi behar duzu zenbateraino gai zaren.

Maila ona nabari al duzu zu bezalako gazteen artean?

Maila ona da, altua. Jende asko dator atzetik eta gogor gainera. Urtean zehar lan handia egiten dute, denak goragoko mailan lekua egitea baitute buruan eta horretarako maila ona duzula erakutsi behar da.

Lan handia egin behar dela aipatzen duzu, kiroleko gogorrenetakoan artean sartu behar al da txirrindularitza?

Nik baietz esango nuke. Maratoiarekin ere konparatu dute txirrindularitza eta gogorrenetakoa dela esaten dute. Eguneroko lana eskatzen duen kirola da, forman egotea eta zaintzea beharrezkoak dira.

Eguneroko lan hori gogorra dela esan duzu, denbora asko eskatzen al du?

Denbora asko eskaini behar diozu, baina aisialdirako tardea ere izaten da, planifikatzen jakitea da kontua. Goizean esnatu eta gosaldun ondoren egunkaria irakurtzen dut eta gero batetik bost ordura entrenatzen dut egunekoan. Udan, berri, bi egunetik behin hartzen dut txirrindua. Denbora librean mendira joatea, zinema eta lagunekin irtetzea gustatzen zait. Oporretan Kanarietara joateko asmoa dut bertan dudan lagun bat bisitatzea.

Kirolarien artean bat aukeratu beharko bazenu.

Beti gustatu izan zait Abraham Olano, oso txirrindulari osoa dela iruditzen zait eta onenen artean sartuko nuke. Erlojupekoetarako berriz, Ullrich-ekin geratzen naiz.

Nork irabaziko du aurtengo Tour-a?

Ullrich eta Armstrongen artean izango dela lehia iruditzen zait niri. Hala ere, izen bat ematekotan, Armstrongen alde egingo nuke, bera ikusten dut horiarekin.

OSTALARITZA ▶

Txotx tabernetan

Duela bi hilabete tabernetan jarri zituzten sagardo txotxek harrera ona izan dutela diote tabernariak; aurrera begira, taberna gehiagotan jarriko dute



Dicken's tabernan botila forman dute kaina. I. TERRADILLOS



Irrintzi tabernakoa bezala, kupela formakoak dira asko. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Uda garaian sarturik, egun eguzkitsuak eta beroak sarri izaten dira gurean, eta freskatzeko, neurriak hartu beharrean aurkitzen gara; eguzkia saihestu alde zaharretako kaleetako itzaletan babestuz, erropa ariak eta eroak jantzi edo edari freskoak hartu daitezke, besteak beste, beroari aurre egiteko.

Edarien artean, ur freskoa aukeratzen dute askok, beste batzuk berrik, garagardo hotza bezala berriz, garagardo edo edari freskoak hartu daitezke, besteak beste, beroari aurre egiteko.

batentzat gehiegixko izanik, bi edo hiruko taldean eskatzea izaten da ohikoa, baina hala ere, afari eta bazkarietarako funtzioa bete izan du, txikiteoko edari bezala baino.

Ardoaren alternatiba

Duela bi hilabetetik hona ordea, garagardo eta ardoaren pare da sagardoa Tolosaldean, eta botila ezezik baso bat sagardo ere eska dezakegu tabernetan 0'50 euroren truke. Garagardo kaina bezala eska daiteke Astigarragako Gurutzetako sagardoa Tolosako hamabost tabernetan eta Amezketa batean egokitu dituzten apartailuei esker; barra gainera ipini dituzte kupel edo botila formarekin eta sagardotegietako kupelen antzera irteetan da bertatik sagardoa.

Oraindik gauza berria dela eta jendea harrituta geratzen dela dio Dicken's tabernako ja-

beak, Kike Garmendiak: «Jendeari gustatzen zaio ideia, gainera udan oso ondo sartzen da sagardoa eta asko dira lehen ardoa edan eta orain sagardoa hartzea pasatu direnak».

Irrintzi tabernako Gonzalo del Nozal ere gustura dago berrikuntzarekin: «Txikiteoan sagardoa eskatuz ibil daiteke taberna askotan baitago jarrita. Jendeak ez luke eskatuko hemen bai eta hurrengoan ez bago, ez zara batean sagardoa eta bestean ardoa eskatzen ibiliko, gainera taberna batzuetan jartzekotan daude oraindik eta gero eta gehiagotan badago orduan eta jende gehiago etorriko da sagardoa eskatuz».

Irrintzi tabernako jabeak tabernan, barraren azpian leku dezente behar dela azpimarratzen du, gainera.

Joxe Mari Balmaseda aritzen da banatzaile lanetan eta berak jartzen du zerbitzu berri hau tabernetan. Lekua oztoko

bat dela dio berak ere, eta tabernari asko geratu direla jarri ezinda. Hozkailua, gas botila eta barrila behar dira eta honek leku asko eskatzen du, guztira metro kubiko bateko tamaina hartzen du eta taberna askotan ez da sartzen.

Txikiteoan hartzeko

«Tolosan posible izan den ia leku gehienetan ezarri dugu eta Tolosaldeko kanpo ere leku askotan ari gara jartzen, oso arrera ona izaten ari da», dio Balmasedak.

«Baziren kasuak, tabernara etorri eta sagardo baso bat eskatzen zutenak, eta orain berriro posible da, gustatzen zait eta badirudi jendeari ere baietz», dio 66 tabernako Koldo Butronek. «Baina hala ere, pixkanaka dihoa, asko kostatzen da jendearen ohiturak aldatzea. Oraindik ez gaude ohituta sagardoarekin poteatzeko».

TABERNAK ▶



Kupela. I. TERRADILLOS

Tolosan hainbat tabernetan —eta Amezketa beste batean— ezarri dute ohiko garagardoarenaren moduan txotx-a eta oraindik ere gehiagotan jarriko badute ere oraingoz hauek eska dezakegu baso bat sagardo:

- ▶ Ikatza.
- ▶ Asteasuarra.
- ▶ Beti Alai.
- ▶ Dicken's.
- ▶ Irrintzi.
- ▶ Raku.
- ▶ Na-ish.
- ▶ Amets.
- ▶ Iratxo.
- ▶ Orbela.
- ▶ Elurra.
- ▶ Fronton.
- ▶ Ordizia..
- ▶ 66.
- ▶ Laier.
- ▶ Arkaitze (Amezketa).

ra», erantzen du sistema honen banatzaileak.

Lehen, ardoa edan eta orain sagardora asko pasatu direla dio bestalde Ordizia tabernako Gorka Abadgoitiak: «Eguraldiaren arabera edatekoa aldatzen du jendeak; beroarekin sagardo freskoa hobeto sartzen da eta eguraldi eguzkitsua dugunean hori nabaritzen da, bestelakoetan, berriz, ardoa eskatzen dute».

Oraingoz, Tolosako hamabost tabernetan ezarri dute, eta Amezketa ere bada txotx edo baso bat sagardo eskatzeko aukera, baina laster jende gehiagoren eskura izango da, izandako arrera ona eta gero, eskakizunak asko baitira. Alegian eta Villabonan adibidez, hainbat tabernetan jarriko dute hemendik gutxira, bertako tolosarren modura txikiteoa edo poteoa ardoarekin ezezik sagardoarekin ere egiteko modua izango dutelarik.

iragarki laburrak ▶

Haurtzaindegia, eta Hezkuntza Bereziko laguntzaileak. Eskola eta zentro publikoetarako lanpostuak. Presta zaitez. Informazioa dohain. 943 650193.
Laborategiko teknikari, laguntzaileak. Plazak libreak udaletxe,

Aldundia eta Eusko Jaurlaritzarako. Informazioa dohain. 943 650193.
Suhiltzaileak. Sarrera berriak tokiko, eskualdeetako parkeetara. Soldata, gutxi gorabehera: 1.500 euro. Informazioa dohain. 943 650193.
Administrariak. Laguntzaileak nahiz

teknikariak. Udaletxeetan eta erakunde publikoetan lan egiteko. Deialdiak maiz eta baldintza Eskola Graduatua. Informazioa dohain 943 650193.
Ingurumena. Langile, teknikari eta agenteak udaletxe, Foru Aldundi eta

Eusko Jaurlaritzan lanpostu libreak. Informazioa dohain. 943650193..
Basozaina. 17 postu libre eskaintza lanpostuan egin ezazu lan. Naturan lan egiteko lanpostua. Informazioa dohain. 943 650193.
Gizarte laguntzaileak. Hurrengo

deialdiak Gipuzkoako udaletxe ezberdinetan eta Foru Aldundian. Informazioa dohain. 943 650193.
Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak. Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzan lanpostu libreak. Informazioa dohain. 943 650193.



**Oraindik ez duzula
HITZAko kamiseta
eskuratu!**

**ZATOZ GERTUEN
DUZUN HITZAREN
EGOITZARA!**

**Bertan
ditugu
salgai!**

hitza

ELDUAIN ► GIZARTEA

Arantxa Otamendi omendu dute herrian

1987az geroztik herritik kanpo bizitu beharrean izaki, lehengo maiatzean zendu zen Baionako ospitalean

JAIONE ASTIBIA

Atzo arratsaldean eman zioten herritarrek azken agurra Arantxa Otamendi elduaindarrari, bere jaiotetxean bertan burutu zen omenezko ekitaldiarekin.

Sortu zen Altsu baserriaren atarian bildutakoek, hunkiturik jarraitu zituzten bertan bildutakoek, guztiek ere herriko alaba gogoan baitzeukaten eta oroimenezko hitzak besterik ez zituzten ahotan. Une berezitan nabarmentzekoa izan zen, beste herriko alaba batek igorritako oroimenezko eskutitza irakurri zenekoa, Ana Belen Eguesek Brievako espetxetik egun honetarako idatzitakoa, hain zuzen ere.

Ekitaldian, txalapartari eta abeslarien doinu artean Arantxa Otamendi eta bere senar zenaren oroimenez jarri zuten oroitarriaren ondoan, errautsak «erein» egin zituzten, leku ber-berean landare gazte bat landatu zutelarik ondoren, «bere errautsetatik indartsu hazi dadin» esanez. Gero Urdegar herriko biltokian afaltzeko ziren.

Arantxa Otamendik, 1987. urtean ihes egin behar izan zuen herritik, Alegiakoa zen bere senar Felix Sarriegi zena-ekin batera. Lehengo maiatzaren 30ean zendu zen Baionako ospitalean, gaixotoki baten ondorioz. Seme baten guraso ziren.



Arantxa Otamendiren argakia aurrean, oroitarria eta landarea. J. ASTIBIA



Omenaldira bildu ziren lagunak ekitaldiari adi-adi. JAIONE ASTIBIA

Herri Irratia
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

MERKATAL AGENTEA

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.



Promozioa eta eraikuntzak

Bizkai kalea, 2 - behea
20400 TOLOSA

Faxa: 943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

www.tolosaldekohitza.info

► sar zaitetz eskualdeko web atarira

► inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

AZOKA ▶

Lasaitasuna
eta eskaintza
aniztasuna
nagusi

Erosle kopurua ez zen oso zabala izan; eskaintzen artean, berrikuntza ugari

PABLO ALBERDI

Lasaitasuna nagusitu zen atzo Tolosako azokan. Eguraldi freskoa eta lainotsua izan zen, eta euria ez egin arren, erosle kopurua ez zen oso handia izan. Eskaintza, ordea, izugarri zabala izan zen, eta berrikuntza ugari ikus zitezkeen postuetan.

Perretxikoen artean, aurtengo lehenengo gibelurdiak aurkitzen ziren salgai 20 euroko salneurrian; ondoren eskaintza geroz eta zabalagoa da, eta, dirudienez, dagoen asteetan handitu egingo da.

Barazkien artean, kalabazina eta Ibarrako piparrak izan ziren berrikuntza aipagarrienak.

ATZOKO AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Gibelurdina	20	-
Onttoa	18	-
Ziza horia	16	-
Oilaskoa (3 aste)	1,50	-
Arkumea	3	3,20
Indioilarra	4,30	-
San Inazio sag.	5	7
Hurra	3	4
Marrubia	3	-
Piper berdea	4,50	-
Tolosako bab.	10	12

Produktu ekologikoak		
Udarea	1,92	2,72
Kalabaza	1,60	3,04
Patata	1,52	-
Arbi morea	3,92	-
Arrautzak	3,38	-
Ogia (600 gr.)	2,25	-

Berdura plaza		
Lilia	1,20	-
Ziklamena	5,50	-
Zintzilikotoa	2,40	6
Udaberrikolorea	0,80	1,20
Begonia	1	1,20
Surfinia	1,90	2,50

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Axurdario: «Herriaren
borondatea ezartzeko
formulak badaude»

Egunotan jasotako kontrako iritziak «kezkarriak» direla azaldu zuten Axurdarioko kideek atzoko prentsaurrekoan



Ezkerretik hasita, Maribi Beldarrain, Jose Antonio Mintegia, Agurtzane Zubeldia, Antton Balerdi eta Xabier Iparragirre, Axurdarioko kideak, eseri ziren mahaian. O. ESKITXABEL

ERREDAKZIOA

Lizartzako alkatea eta GBBko (Gipuzkoa Buru Batzar) lehen-dakari Joseba Egibarrek EAJko hiru zinegotzi lizartzarren esku utztearen erabakia ezagutu zen ostegunean, uztailearen 8an. Horren inguruan, aurkako jarrera agertu zuen, besteak beste, Euskadi Buru Batzarreko lehendakariak, Josu Jon Imazek. Bihar, astelehena, gai hori aztertzeke EBBko bilkura deitu du Imazek. Egibarren nahiak gauzatzekotan «zein auzibide jarraitu erabakitzeke txosten juridikoa osatzeko» eskaera luzatu du, bestalde, Paulino Luesmak, Espainiako Gobernaren ordezkariak.

Axurdario herri plataformak atzo eskaintako prentsaurrekoan luzatu zuen gertatutakoaren inguruko iritzia: «Herriaren erabakia errespetatua izan dadin lortzeko ematen diren urratsak» baikortzat jo zituen Axurdario taldeak prentsaurrekoan.

Zentzu horretan, «Lizartzan gertatu den bezala, borondate politikoa izatekotan, herritarren borondatea ezartzeko formulak egon badaude la», zehaztu zuen Agurtzane Zubeldiak, idatzia irakurri zuen Axurdarioko kideak.

Azken egunotan ahalegin horretan jasotako kontrako iritziak «onartezinak» direla zehaztu zuten; are gehiago, «Alderdien Legearen eta *apartheid*-aren aurka agertu diren hitzek harridura eta kezka sortu dizkigute», gehitu zuten Axurdario taldeko kideek. Aurkako jarrera agertu dutenei «*apartheid*-aren kontura etekinak ateratzeko interesa» ere leporatu zieten.

Herri gehiago

Joseba Egibarrek Lizartzan hartutako erabakia «Gipuzkoako beste bost herritarra zabaltearen nahia» agertu zuen pasatutako ostegunean. Axurda-

AGURTZANE ZUBELDIA
AXURDARIO TALDEKO KIDEA

«Alderdien Legearen eta *apartheid*-aren aurka agertu diren hitzek harridura eta kezka sortu dizkigute»

rio herri plataformak, herrien zerrenda 224 herriek osatzen dutela zehaztu zuen atzo: «Herriarren borondatea errespetatzeko Lizartzan ematen ari diren urratsak, *apartheid* egoera ematen den herri guztietan, 224 guztira, eman daitezke la», eskatu zuen «Lizartzan posible bada besteetan ere bai», esanez.

Lan hori gauzatzeko, «Alderdien Legearen aurka daudela dioten alderdi politikoei, EAJ, EA, Aralar, Ezker Batua... hitzetik ekintzetara pasatzea» eskatu zieten.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaidea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegietia. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzion klinika: 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Olarreaga, J., Martin Jose Iraola, 10. (Ibarrak). 67 24 38.
Plaza, M., Elbarren 36 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
villabona_aitzondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaidea. 687 41 01 18.
leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LAN ESKAINTZA

Etxeko lanak. Alegian emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. Orduategia, 10:30etik 14:30era. Telf: 943 65 30 34 (arratsaldeetan deitu).
Taberna. Aste bukaeratarako neska bat behar da barrarako. Telf: 943 69 19 33.

SALGAI

Logela. Altxariz guztiz hornituta dagoen 5 urteko logela eder bat saltzen da modu onean oso. Telefonoa: 618 25 50 00.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

